



Elkanoren ingurune kulturala: Modernia hasierako pentsamendua Euskal Herrian



Eka. 13 - Eka. 14 2022

Kod. F01-22

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2022

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Eka. 13 - Eka. 14 2022

Kokalekua

Carlos Santamaría Zentroa

Hizkuntzak

Euskara Gaztelera

Balio akademikoa

20 ordu

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

Juan Sebastian Elkanoren bizitza (1487-1526) krisi eta aldaketa sakoneko une historikoan garatu zen, Erdi Arotik Aro Modernorako zubian hain zuzen. Europar pizkundeari mundu handiaren ateak zabalduko dizkion dinamiken gurutze-bidean aurkitzen da Elkano, munduak ezagutzen dugun forma konkretua hartu aurretiko esplorazio garaian. Haustura intelektualen eta posibilitate irekien garaia hura izango da aztergai Uda Ikastaro honetan, garaiko teologia zein politika, zientzien zein erakunde publikoen garapenak, betiere egungo begiradatik eta pentsaera kritikoaren metodologiaz.

Mundua zabaltzea eta erlijiora uzkkurtzea, XVI. mendeak zeharo aldaraziko ditu europarrek zuten munduaren irudia eta ikuskera: niaren eztanda (Ávilako Teresa edo Montaigne), erreforma (Margarita Nafarroakoa esate baterako), kontrarreforma (Loiolako Iñigo eta Xabier), pizkundera edo humanismoa (Rotterdamgo Erasmo edo Tomas Moro), besteak beste. Euskal kostaldean ere, Austria Etxearen zerbitzuan, eredu aldaketak emango dira eta euskaldunen pentsamoldetan antzinatea, euskara, garbitasuna/berezitasuna zein noblezasuna/hiritartasuna eguneratu behar izango dira errealtate inperialaren eta herrien hazkunde lokalari egokitzeko.

Helburuak

Juan Sebastian Elkanoren garaiko Euskal Herrian bizi ziren gizon eta emakumeen kultur-giroa, pentsamendua, eguneroko bizitza, kezka eta interesen berri izatea, eta garai hartako testuinguru politiko eta ideologikoa ezagutzea.

Bidaia haren ondorioei buruz gogoeta egitea, eta 500 urtetik gaurdainoko igarotzean gure mundua zein neurritan aldatu den hausnartzea.

Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak



Programa

2022-06-13

09:00 - 09:30	Erregistroa / Registro
09:30 - 09:45	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Rafael Zulaika --- Elkano 500 Fundazioa - Ikastaro zuzendaria Ekai Txapartegi Zumeta UPV/EHU - Ikastaro zuzendaria
09:45 - 10:30	“Kapareen errepublikak: mentalitate kontraesankorrak Erdi Aro eta Pizkundearen arteko Eukal Herria?” Álvaro Aragón Ruano UPV/EHU - Aro Berriaren eta Amerikaren Historia Sailean irakasle agregatua.
10:30 - 11:00	“Utopia sortu zen garaia eta Borneo uhartearen deskribapena” Alba Garmendia Castaños UPV/EHU - Filosofian doktorea
11:00 - 11:30	Atsedena
11:30 - 12:00	“Mundu Handia” Joseba Sarrionandia Uribelarrea Idazlea
12:00 - 12:30	“Montaigneren Des Cannibales, non barbaroen eta zibilizatuen usadioak konparatzen diren.” Kristina Lasa Otxoteko UPV/EHU - Irakaslea Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia fakultatean
12:30 - 13:15	Galderak/debate
13:15 - 13:55	“Ahozko komunikazioak” Hondarribiaitik Ameriketara: Jaizkibelgo errotarien arrastoari segika Denis Álvarez Pérez-Sostoa Martin Arrada: Txinara iritsi zen nafar kosmografoa Galder Gonzalez Larrañaga
13:55 - 14:00	Lehen eguneko ondorioak eta agurra

2022-06-14

09:30 - 10:00	“Elkano. Orígenes, razones y desarrollos en la invención de un relato” Enrique Santamaría Urtiaga Historiador y escritor
10:00 - 10:30	“Aro Konfesionala eta euskal emakumeak: adoktrinamendutik dizplinamendura”

10:30 - 11:00

“Euskara idatziaren hastapenak”

Txabar Altube Sarrionandia | Bertsolaria eta EHUUn masterreko ikaslea

11:00 - 11:30

Galderak/debate

11:30 - 12:00

Atsedena

12:00 - 13:00

“Euskaldunik gabeko XVI. mendea”

Unai Bayon Aranburu | UPV/EHU - Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia fakultateko irakaslea

13:00 - 13:40

“Ahozko komunikazioak”

Arnaud Oihenart, XVI. mendearen bukaeran

Miguel Ángel Unanua Garmendia

13:40 - 13:45

Diploma komunikazio onenari

13:45 - 14:00

Uda ikastaroaren ondorioak eta itxiera

Zuzendaritza



Ekai Txapartegi Zumeta

EHU



Rafael Zulaika ---

Elkano 500 Fundazioa


Irakasleak



Txaber Altube Sarrionandia



Denis Álvarez Pérez-Sostoa



Álvaro Aragón Ruano

UPV/EHU

Alvaro Aragón Ruano (Oiartzun, 1969-11-09) 1992. urtean Historian lizentziatu zen Deustuko Unibertsitatean eta 2000. urtean doktore titulua eskuratu zuen Euskal Herriko Unibertsitatean, non Irakasle Agregatua da. Hasiera batean, bere ikerketa lana baso eta abeltzaintza historian kokatu bazuen ere, azken urteetan, lerro hori baztertu gabe, Euskal Herriko merkataritzaren historiarekin partekatu du. Eremu horretan nazioarteko zein Espainia mailako aldizkarietan argitaratu ditu bere ikerketak (Atlantic Studies, International Journal of Maritime History, Journal of European Economic History, Obradoiro de Historia Moderna, Studia Historica, e.a.), batik bat, euskal merkatarien presentzia, euskalduntasuna eta identitatea nazioarteko merkatuetan aztertuz. Honekin batera, egun, alde batetik, Espainiar zein Frantziar Estatuaren barruan euskal foru lurraldeek garatutako muga eta identitate diskurtsoak ari da aztertzen, eta bestetik, merkataritza elite horien jatorri lehen mundu globalizazioaren kontestuan.





Alba Garmendia Castaños



Galder Gonzalez Larrañaga



Kristina Lasa Otxoteko



Amaia Nausia Pimoulier

Eusko Ikaskuntza


Es doctora en Historia Moderna (Doctorado Europeo) por la Universidad de Navarra (2010). Con anterioridad fue Investigadora en la Universidad de Pisa (2007). Desde mayo de 2009 es Responsable de proyectos de Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos. Su investigación académica se centra básicamente en la problemática femenina durante el Antiguo Régimen. Su tesis doctoral, bajo la dirección del profesor Jesús M^a Usunáriz, giró en torno a la viudedad femenina en la primera Edad Moderna. Otras publicaciones de interés son las monografías *¿Vírgenes o putas? 500 años de adoctrinamiento femenino (1512-2012)*, EREIN, Donostia-San Sebastián, 2012, y junto a Julia Baldó, *Ser Mujer (siglos XIII-XVII)*, Diario de Navarra, Servicio Publicaciones Gobierno de Navarra, 2012. Entre sus artículos en revistas podrían reseñarse los siguientes: "Suegros, nueras y viudas ante los tribunales. La



Miguel Ángel Unanua Garmendia



Enrique Santamaría Urtiaga



Joseba Sarrionandia Uribelarrea

Joseba Sarrionandia Uribelarrea, idazlea (Iurreta, 1958). Euskal Filologian lizentziatu zen Bilboko Deustuko Unibertsitatean, eta euskara irakasle lan egin zuen. Bergarako UNEDen fonetika irakasle izan zen eta Habanako Unibertsitatean ere irakasle aritu zen. Zeruko Argia, Anaitasuna, Jakin eta Oh! Euzkadi aldizkarietan eman zituen argitara bere lehen lanak, eta Pott Bandako kideetako bat izan zen. Euskaltzain urgazlea, Ibaizabal aldizkariaren sortzaileetako bat ere izan zen. 1980an gatibu hartu zuten, eta 1985ean Martuteneko espetxetik ihes egin zuen. Kuban ia lau hamarkada luzeko erbestealdiaren ostean, 2021. urteko udaberrian itzuli zen Euskal Herrira. Sarrionandiaren ibilbide literarioa biziki oparoa da. Hamarkadaz hamarkada hainbat literatur sariketetan sarituak izan dira haren lanak. Eta haren hainbat liburu, Izuen gordelekuetan barrena (1981), Narrazioak (1983), Ni ez naiz hemengoa (1985), Marginalia (1988), Kartzelako poemak (1992), Hnuy illa nyha majah yahoo (1995), Lagun izoztua (2001), Kolosala izango da (2003), edota Moroak gara behelaino artean? (2010), besteak beste, euskal literatura garaikidearen baitako libururik irakurrienetakoak dira.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE

2022-06-13 ARTE

Matrikula doan

0 EUR

ONLINE ZUZENEAN

2022-06-13 ARTE

Matrikula doan

0 EUR

Kokalekua

Carlos Santamaría Zentroa

Elhuyar plaza 2, 20018 - Donostia

Gipuzkoa